

Lana berresten

Edozein kooperatiba-modalitatetako lana, jarduera ekonomiko hutsetik harago doa. MONDRAGONeko kooperatiben historia osoan zehar, lana gizarte eta enpresa-proiektu batekin lotuta dago. Pertsonak hazten eta gizartea eraldatzen laguntzen du.

Baina lanaren zentzua desberdina da persona bakoitzarentzat: batzuentzat bizitzaren zentzu edo zigor jainkotiarra da, eta beste batzuentzat bizimodua aurrear ateratzeko bide solia.

Gaur, lana mila zatitan lertu eta prekarietate soziolaboralaren parte da. "Economía colaborativa" deituen eremutara jo du eta "minijobs" edo "gig economy" an lan egiteko moduetara eboluzionatzen ari da.

Digitalizazioaren eta bitartekaritzarik ezaren emaitza da lana, eta unean uneko komenigarritasunari atxikitzen zaio.

Kooperatibismoan, erronka handi bat dugu: Gizarte honetako lana berrindartzea alegia. Zeren, gaur oso bestelakoa baita kooperatibek hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan izan zuten egoeran aren aldean. Kooperatiba-balioekin zerikusi gutxi duten balio menderatzaileetan oinarrituta antolatzen den gizarte honetan.

Hau geure gaurko erronka da. Horregatik, gure hausnarketan honetan Arizmendiarrietaren "lana" kontzeptutik abiatuz hasiko gara.

Bere kontzepzio erradikaletik hasita. Bai. "Lana, oroz gaineratik, komunitateari egiten zaion zerbitzu bat eta pertsona garatzeko modu bat da". (p263)

Eta aurrera begira, Arizmendiarrietak "lana" mila zatitan hautsi eta erabat indibidualizatzen duen "taylorizaziotik" urrun jartzen gaitu. "Aurrerapen teknikoaren ondorioz, guztiok lagundu behar dugu beren antzekoekin. Talde-lana gailentzen da: emaitzarik onena ematen duena da". (Cooperación 13)

Eta geuri tokatzen zaigun erronkaren aurrean kokatzen gaitu. "Lanaren betebeharra eta hortik datorren guztia seriotasunez hartzea, gaur egun eta gure kasuan, langileen samalda handiari egin dakiokkeen atxikimendu frogarik onena da. Guri, lana gure kabuz eta gure kontzientziaren, duintasunaren eta eskubideen arabera antolatu dugunoi dagokigu, inori baino gehiago, langilea egiteko kapaz dena behar bezala erakustea, eta egiaztatzea langilea benetako heldutasunera iritsi dela eskubide osoz jarduera sozio-ekonomikoak gidatzeko eta ondoriozko esku hartze politikoetan jarduteko". (p498)

Egia al da etorkizuneko lanbide berriak, lapostu erreal bihurtzen direnean, pertsonen bizi-hazkunderako ere, eta ez soilik hazkunde profesionalerako bide billakatuko direla? Kooperatibiston gaurko erronka bete tetean gaude.

Arizmendiarrietak garbi gogorarazten zigun: “Langile klasearen adin nagusitasuna finkatuko da langile klaseak posizio irmo bat finkatzen duenean produkzio ondasunen jabetzan eta, ondorioz, ekonomiaren alor guztietan eragiten duenean”. (p291)

Tim O 'Reillyk idazten duenez "Gaurko egoeraren ibilbidea ez da saihestezina, guk bai diogu etorkizunari forma ematen. Tresna berri horiek eraiki ditugu, eta geure betebeharra da behar bezala erabiltzea".

Arizmendiarrietaren ikuspegitik gure erantzukizunari eta gaurko erronkei aurre egitea da. “Langile klasearen adin nagusitasuna finkatuko da langile klaseak posizio irmo bat finkatzen duenean produkzio ondasunen jabetzan eta, ondorioz, ekonomiaren alor guztietan eragiten duenean” (p497.gogoeta)